



HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE INTERIOR,
JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

*Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza*

*Dirección de Atención a las Víctimas de la
Violencia de Género*

**KOORDINAZIO PROTOKOLOA, SEXU-ESPLOTAZIORAKO GIZAKI-SALEROSKETAREN
BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZEKO, ADMINISTRAZIO-EGOERA
ERREGULARREAN DAUDENEAN**

**EUSKO JAURLARITZAKO GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA ETA
GIZAKI SALEROSKETAREN ARLOKO TALDEA**



ERAKUNDEAREN



BABESTEN DUGU

SARRERA

Prestatzen ari den protokoloa Euskal Autonomia Erkidegoan, egoera erregularrean izanda, sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktima direnei laguntzeko mekanismo argi eta eraginkor bat antolatzekeo premiari emandako erantzuna da.

Proposamen honen ondorioetarako, **sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimatzat** jotzen dira sexu-esplotazioa nozitzen duten edo nozitu duten emakumeak eta talde hauetan daude banatuta:

- Espainiako nazionalitatea duten emakumeak, jaiotzez hala dutenak edo geroago aitortuta edo eskuratuta.
- Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea duten emakumeak
- Oro har, Schengen esparrutik datozen emakumeak
- Egoera erregularrean izanda, hirugarren herrialdeetatik datozen emakumeak
- Administrazio-egoera erregularrean izanda, EAetik iraganbidean dauden emakumeak

PROTOKOLOAREN HELBURUA

Euskal Autonomia Erkidegoan, administrazio-egoera erregularrean izanda, genero-indarkeriaren biktimatzat hartuta daudela, sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimetzako laguntza integraleko jarduerak identifikatzea eta antolatzea. Hori dela eta, erakunde eta talde bakoitzaren eginkizunak finkatzen ditu, erakunde barruko eta arteko lankidetzarako formulak biktima ezarritako zirkuituan sartzen denetik, arretaren garapena, irteteko baldintzak eta ondorengo jarraipena.

HELBURU OROKORRA

Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktima diren eta, halaber, Estatukoak, erkidegokoak edo etorkin erregularrak diren emakume guztiek, delitu horren biktima diren aldetik, beren beharren arabera babesa eta arreta jasotzen dituztela bermatzea.

ESPARRU ARAUTZAILEA

Nazioarteko erakundeak

- **Pertsonen –bereziki emakumeen eta haurren– salerosketa prebenitu, zapaldu eta zigortzeko Nazio Batzuen Erakundearen 2000ko Palermoko Protokoloan**¹ ezartzen dira, indarberritzeari zuzendutako zerbitzuen bidez, salerosketaren biktimak babesteko neurri batzuk, baita ordaintzeko eta -hala egokituz gero- aberriratzeko ere.
- Nazio Batuen Erakundearen **Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko 1993ko Adierazpenak** emakumeen kontrako indarkeria honela definitzen du:
"emakumea izatean oinarri duen indarkeria-ekintza oro, baldin eta emakumeentzat kalte edo oinaze fisikoa, sexuala edo psikologikoa ekartzen badu. Horren barruan ere sartzen dira ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapena egitea edo askatasuna modu arbitrarioan kentzea, bizitza publikoan nahiz pribatuan". (1. art.)

Europar Batasuna

- Europar Batasunak, Palermoko Protokoloa sinatu baino lehen, 2000ko maiatzean **sexu-esplotaziorako gizakien trafikoari buruz Europako Kontseiluak emandako gomendioa**² argitaratu zuen.
- **Gizakien salerosketa arloan Europar Batasuneko aditu-taldeak 2004an egindako txostenak**³ azpimarratzen du giza eskubideei buruzko ikuspegiaren beharra, hain zuzen, pertsonen salerosketari aurre egiteko politikak garatzeko arau-esparru gisa. Eta adierazten du, alde batetik, trafikoaren biktimen berehalako premiei erantzun egin behar zaiela, hala nola ostatu segurua eta mantenurako baliabidea eman; eta, bestetik, egituratutako eta epe luzerako laguntza-programak⁴ beharko direla.
- **Gizakien trafikoaren kontrako borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak**⁵ (2005eko maiatza. Varsovia) biktimen eskubideak eta bermeak jasotzen ditu.

¹ Protokolo honek eta lehorreko, itsasoko zein aireko migratzaileen legez kontrako trafikoaren aurkako Protokoloak osatzen dute antolatutako delitugintza transnazionalaren aurkako Nazio Batzuen Konbentzioa (Palermo, 2000ko abendua).

² R (2000) 11 Gomendioa, Europako Kontseiluko Ministroen Komiteak 2000ko maiatzaren 19an onartutakoa, sexu-esplotaziorako gizaki-trafikoari buruzkoa.

³ Europako Batzordea (2004ko abendua) *Report of the Experts Group on Trafficking in Human Beings*, 181-184. orr.

⁴ Europako Batzordea (2004ko abendua) *Report of the Experts Group on Trafficking in Human Beings*, 177. orr.

⁵ Europako Hitzarmen hau 2008ko otsailaren 1ean sartu zen indarrean, baina Espainiak 2008ko uztailan sinatu eta 2009ko apirilean berretsi zuen. Espainiako Estatuan 2009ko abuztuaren 1ean sartu zen indarrean.

- **Europako Parlamentuak sexu-esplotazioaren aurrean ahulak diren emakumeen eta haurren salerosketa prebenitzeko estrategiei buruz 2006an emandako Ebazpenak** hau ezartzen du:

"Estatuek iraganean salerosketaren biktima izan diren emakumeak eta haurrak gizarteratzeko eta birgaitzeko programak garatu eta aplikatu ditazela, betiere horretarako gaitutako erakunde eta elkarteekin koordinatuta, baita mikrofinantziatzerbitzuak ere; hain zuzen, emakumeek laguntza ekonomikoa errazago lortu ahal izateko."

- Europako Kontseiluak 2007an **pertsonen salerosketaren biktimak identifikatzeko eta bideratzeko gomendioak**⁶ argitaratu zituen. Gomendio horietan nabarmentzen da bideratzeko mekanismo nazional bat sortzeko beharra, gobernu-erakundeen arteko koordinazioa eta gizarte zibilarekiko lankidetzaren bermatzeko. Halaber, azpimarratzen du gizarte zibilak eta herritarrek salerosketaren biktimak identifikatzeko funtsezko papera dutela.
- **Europako Batzordeko gizaki-salerosketako Adituen Taldearen 7/2010 Irizpena:** "Europako estrategia baterako proposamena eta gizaki-salerosketaren kontrako borrokan eta prebentzioan izan beharreko lehentasuneko ekintzak eta salerosketaren eta esplotazioaren xede diren pertsonen eskubideak babestea". Irizpen horretan gizaki-salerosketari buruzko Adituen Taldeak estatu kideei dei egiten die barneko trafikoen arazo handia kontuan har dezaten, salerosketaren kontu honetaz Europako Batzordea ohartarazten du eta, halaber, arazoari heltzeko neurri egokiak hartzeko gomendioa egiten du:

➤ **Barneko trafikoa**

Barneko trafikoa hainbat egoera desberdinetan gerta daiteke:

1. Emakume/pertsona nazionalen barne-trafikoa Estatuaren barruan.
2. Europar Batasuneko estatuetatik eta estatuetarantz egindako nazioz gaindiko trafikoa eta ondoren Estatu hartzailetik egindako barne-trafikoa.
3. Estatu kide batera egindako nazioz gaindiko trafikoa, erregularizazioa eta ondoren estatu horren barruan egindako barne-trafikoa.

➤ **Barne-trafikoa zigortzeko zioak**

Barne-trafikoen kriminalizazioa antolatutako delitugintza transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioaren 34. artikuluko 2. paragrafoan oinarritzen da. Bertan aurreikusten da legediak ez duela jaso behar delinkuentziaren izaera transnazionalari edo antolatutako delitu-talde baten presentziari buruzko elementurik barneko delituen xedapenetan. Antolatutako delitugintza transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioak printzipio hau ezartzen du: estatu kideek delituaren izaera transnazionalaren nolabaiteko maila jaso

⁶ Gomendio hauek Europako Batzordeko Justizia eta Barne Arazoetarako Kontseiluak 2007ko azaroan hartu zituen. Dokumentuaren jatorrizko izenburua: "Recommendations on identification and referral to services of victims of trafficking in human beings". ec.europa.eu/justice_home/fsj/crime/trafficking/doc/recommendation_22_11_07_en.pdf helbidean eskuragarri

behar badute ere; baita, Palermoko Protokoloko alderdi gehienei dagokienez, antolatutako delitu-talde baten partaidetza ere, beren fiskalek ez dute egitate hori frogatu behar pertsona-trafikoarengatik edo Konbentzioan edo haren protokoloetan ezarritako beste edozein deliturengatik kondena lortzeko. Pertsona-salerosketaren kasuan, zigor-kodeak ere aplikatu beharko lirateke delinkuentziak izaera transnazionalik ez duen eta antolatutako talde kriminalek esku hartzen ez duten kasuetan.

➤ **Estatu kideetan egun dagoen barneko gizaki-salerosketari buruzko ezagutza**

UNODCek 2009an Europan dagoen gizaki-trafikoaren egoeraren inguruan egindako azterketak nahikoa informazio ematen du barne-trafikoari buruz estatu kideentzat fenomenoaren larritasuna eta garrantzia ebaluatu ahal izateko.

Azterketak adierazten du gizaki-salerosketa hainbat hamarkadatan zehar ikusia izan dela atzerriarrak ukitzen dituen fenomeno gisa. Hala ere, datuek erakusten dute barneko gizaki-salerosketa gaur egungo gizaki-salerosketaren osagai garrantzitsua dela. Ondorioa da horren aurka hartutako neurri askoren bidez (hala nola aduanetako eraginkortasuna, integrazio etnolinguistikoa, biktimak identifikatzea migrazio irregularren kasuetan, Enbaxadako eta Kontsuletxeko langileen prestakuntza, atzerriko lanari buruzko sentsibilizazio-kanpainak) ezinezkoa dela trafiko-mota horri aurre egitea.

Ondorioak **pertsonen salerosketari buruzko 2009ko otsaileko Txosten Orokorrean** argitaratu ziren. Bertan egiazta daiteke, 2005etik 2006ra bitartean, jatorriaren arabera, delitu horrengatik biktimizazio-kopurua hau izan zela: 1536 Errumanian, 966 Brasilen, 347 Errusian, 204 Paraguain, 130 Bulgarian eta Txinan, 118 Marokon, 18 Kolonbia, **13 Espainian** eta 1.122 zehaztu gabeko beste herrialde batzuetan.

Jarraian, estatu kideek barneko gizaki-salerosketari eman dioten erantzunean Adituen Taldeak aurkitutako akats batzuk azaltzen dira:

➤ **Estatu kideetako barne-trafikoaren kriminalizazioari buruzko legegintza-hutsuneak**

Nahiz eta barne-trafikoa zigortu beharko litzatekeen antolatutako delitugintza transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioaren eta Palermoko Protokoloren arabera, estatu kide guztiek ez dute horretarako zigor arloko legedirik.

➤ **Barneko gizaki-salerosketaren biktimak behar bezala identifikatzeko prozedurarik eza**

➤ **Barneko gizaki-salerosketaren biktimetzako laguntzarik eta babesik eza**

Biktimak ez identifikatzea, nazioarteko arauak ez ulertzea eta trafikoaren kriminalizazioari eta barneko gizaki-salerosketari buruzko lege nazionalen urritasuna direla eta, gobernuei eta zerbitzu-hornitzaileei eragozten die biktima horien berariazko beharretan arreta jartzea. Europar Batasuneko estatu kideen arteko berdintasunik ez dago erreferentziazko mekanismo nazionalak dagokienez eta, hortaz, barneko gizaki-salerosketaren biktima guztiek ezin dute eskuratu gizaki-salerosketaren biktima gisa behar duten laguntza espezializatua.

- **Barneko gizaki-salerosketaren biktima potentzialei eta erabiltzaileei zuzendutako prebentzio-neurririk eza.**
- **Barneko gizaki-salerosketari buruzko kontzientzia publikorik eza**
- **Nahikoa daturik eta informaziorik eza**
- **Barneko gizaki-salerosketaren aurkako borrokarako eta biktimei laguntzeko funtsik eza.**

Daturik eta informazio orokorrik eza dela eta, barneko gizaki-salerosketaren garrantziari buruzko ikuspegi errealaristik ez egoteak galarazten du jarduera kriminal horren kontra borrokatzeko eta biktimei laguntza emateko nahikoa funts esleitzea. Gainera, biktimak sarri beste delitu batzuetan oker sailkatuta agertzen direnez, funtsak maiz gizaki-salerosketaren biktimetzat egokiak ez diren programetara esleitzen dira.

- **Legeari betearazi behar duten funtzionarioen, magistratuen eta zerbitzu-hornitzaileak diren erakundeen prestakuntzarik eza.**

Barneko trafikoa ez da agertzen gizaki-salerosketaren kontrako borrokan esku hartzen duten profesionalei zuzendutako prestakuntzan.

Barneko gizaki-salerosketaren garrantzia ezagutzeko beharra dela eta, Adituen Taldeak uste du ekintza hauek burutu beharko liratekeela:

- Ziurtatu beharko litzateke estatu kideek barneko gizaki-salerosketa badagoela ikusten dutela, hartaz jabetzen direla eta hari heltzen diotela.
- Ezarri beharko lirateke zigortzeko beharrezkoak diren oinarri juridikoak, era horretan ikertzea eta auzipetzea ahalbidetzeko.
- Uneko egoera ebaluatzea.
- EBren erantzuna zenbateraino den egokia/eskasa ebaluatzea eta jardueran dauden hutsuneak identifikatzea.
- Uneko arreta-neurriak Estatuko edo estatu kideetako biktimei aplikatu ahal zaizkien zehaztea.

- Garrantzia eta irismena identifikatzeko datu-bilketa ahalbidetzea.
 - Arazoari buruz kontzientziatzea.
 - Bere erakundeetatik barneko trafikoaren kontrako borroka eraginkorra egite aldera, Europako Batzordeari neurri bereziak proposatzea.
- **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ZUZENTARAUA**, gizaki-salerosketaren prebentzioari, haren kontrako borrokari eta biktimen babesari buruzkoa, 2002/629/JAI Esparru-erabakia indargabetzen duena. Europako Kontseiluko 2005eko Hitzarmena du oinarri eta ikuspegi orokor bera du. Haren barruan prebentzioa, auzipetzea, biktimen babesa eta gainbegiratzea sartzen dira. Dena den, balio erantsi gisa elementu nagusi hauek ditu:
 - Arau-hausteen larritasunaren arabera zigor-eskala zehatza ezartzen du (4.artikulua).
 - Jurisdikzio-eskumeneko arau zabalagoa eta lotesleagoa da eta, alde horretan, estatu kideak behartzen ditu gizaki-salerosketaren delitua beren lurraldetik kanpo egin duten herritarrek eta egoiliarrek auzipetzera (9. artikulua).
 - Biktimei delitu-jardueretan inplikaturik izateagatik zigorrak ez jartzeari buruzko xedapenaren irismen zabalagoa du, gizakien salerosketan inplikaturik dauden erabili dituzten legez kanpoko baliabideak gorabehera (6. artikulua).
 - Biktimei laguntza gehiago eskaintzen die, batez ere tratamendu medikoari dagokionez (10. artikulua).
 - Babes-neurri bereziak barne hartzen ditu gizaki-salerosketaren biktima adingabeentzat (12.etik 14.era arteko artikulua).

Horrez gain, EBren araudietan antzeko edukia duten xedapenen integrazioak agerian uzten ditu EBko ordemendu juridikoan ezarritako baldintza murriztaileagoek dakartzaten abantailak, zehazki inplementazioa berehala indarrean sartzea eta gainbegiratzea.

ZUZENTARAUAREN EDUKIA

▪ **Kontzeptuari loturik:**

Gizaki-salerosketaren fenomenoan agertzen diren elementu berriei ekite aldera, Zuzentarau honek 2002/629/JAI Esparru-erabakian ezarritakoan baino kontzeptu zabalagoa hartzen du gizaki-salerosketari buruz eta, horrenbestez, beste esplotazio-era batzuk barne hartzen ditu. Zuzentarau honen testuinguruan, nahitaezko eskektasuna nahitaezko lan-modu edo zerbitzutzat hartu behar da, LANEren 1930eko ekainaren 29ko nahitaezko edo derrigorrezko lanari buruzko 29. Hitzarmenak dakarren definizioaren arabera. Hortaz, eskektasunaren esplotazioa bakarrik sartzen da gizaki-salerosketaren definizioaren barruan nahitaezko lan edo zerbitzuaren elementu guztiak elkartzen direnean.

▪ **Jurisdikzio eskudunari loturik:**

Nazioarteko delitu-taldeen gune operatiboa estatu kide batean izanez gero eta hirugarren herrialde batzuetan gizaki-salerosketan ari badira, benetan auzipetzen direla ziurtatze aldera, gizaki-salerosketaren kasuan jurisdikzio eskuduna ezarri behar da baldin eta egilea estatu kide bateko nazionala edo ohiko egoiliarra bada eta arau-haustea estatu kide horren lurraldetik kanpo egiten bada. Era berean, jurisdikzio eskuduna ere ezarri behar da baldin eta biktima estatu kide bateko nazionala edo ohiko egoiliarra bada edo arau-haustea estatu kide baten lurraldean kokatutako pertsona juridiko batek lurralde horretatik kanpo egiten badu.

▪ **Eskubideak eraginkortasunez gauzatzeari loturik:**

Gizaki-salerosketaren biktimek beren eskubideak modu eraginkorrean baliatzeko eran egon behar dute. Horrenbestez, laguntza eta babesa eskaini behar zaizkie zigor-arloko prozedura hasi baino lehen, egiten ari den bitartean eta amaitu ondorengo behar besteko aldian. Eraginkorrak izan daitezzen, laguntza eta babes horiek informazioa emanez eta ados jarritz eskaini behar dira; hain zuzen, biktimak baimena eman dezan, esate baterako, gaixotasunak detektatzeko probak egiteko edo babeserako funtsezkoak diren beste neurri batzuk hartzeko. Emandako laguntzaren eta babesaren barruan gutxieneko neurri-multzo bat sartu behar da biktimari indarberritzea eta salerosketan nahasitako pertsonengandik ihes egitea ahalbidetzeko. Neurri horiek aurrera eramateak kontuan izan behar ditu, prozedura nazionalekin bat etorritik egindako banakako ebaluazioan oinarriturik, eragindako pertsonaren egoera eta beharrianak. Edozein pertsonak laguntza eta babesa jaso behar ditu gizaki-salerosketaren biktima izan delako zantzuak daudenean, lekuko gisa esku hartu nahi duen edo ez kontuan izan gabe.

▪ **Zigor-arloko prozedurari loturik:**

Biktima zigor-prozesuan duen estatutuari buruz Kontseiluak 2001eko martxoaren 15ean hartutako 2001/220/JAI Esparru-erabakiak biktimei hainbat eskubide ematen dizkie zigor-arloko prozeduren eremuan, besteak beste, babeserako eskubidea eta kalte-ordainerako eskubidea. Gainera, zaindu egin behar da gizaki-salerosketaren biktimek aholkularitza juridikoa eta lege-ordezkaritza dituztela, bereziki kalte-ordaina erreklamatzeko helburuz. Aholkularitza juridikoaren xedea da biktimei informatuta egotea ahalbidetzea eta haien esku dauden aukeren gaineko aholkuak jasotzea. Aholkularitza juridikoa eta lege-ordezkaritza doan eskaini behar dira, batez ere biktimak nahiko baliabide ekonomikorik ez badu, betiere modu koherentean estatu kideetako barne-prozedurekiko.

Gizaki-salerosketarekin batera agertu ohi diren abusuak eta tratu apalesgarriak - hala nola sexu-esplotazioa, bortxaketa, esklabotzaren antzeko jarduerak edo organoen erauzketa- jasan dituzten biktimak **bigarren biktimizaziotik babestu egin behar dira**, baita zigor-arloko prozeduran gerta daitekeen edozein esperientzia traumatiko berritik ere. Helburu horrekin, beren beharretara egokitutako tratua jaso behar dute ikerketa eta jarduera judizialak egin bitartean. Norberaren beharren

ebaluazioari dagokionez, hainbat inguruabar kontuan hartu behar dira, horien artean adina, balizko haurdunaldia, osasuna, minusbalotasuna eta beste egoera pertsonal batzuk; baita biktimak jasandako delitu-jardueraren ondorio fisiko eta psikologikoak ere. Tratu hori aplikatzeko edo ez aplikatzeko erabakia eta zein eratan egin behar den kasuz kasu, betiere Estatuko araudian ezarritako irizpideekin eta epaitegien eskumeneko botereari, jardun eta orientabide judizialari buruz indarrean dauden arauekin bat etorritz.

▪ **Prebentzioarako eta profesionalen prestakuntzarako politikak antolatuz:**

Estatu kideek gizaki-salerosketaren prebentzioarako politikak landu eta/edo indartu egin behar dituzte –esplotazio-modu guztiak pizten dituen eskaria gutxitzeko neurriak barne hartuta– eta; bestetik, gizaki-salerosketaren biktima izateko arriskua txikiagotzen duten neurriak, horretarako ikerketa, informazioa, sentsibilizazioa eta hezkuntza erabiliz. Ekimen horien esparruaren barruan, estatu kideek generoarekin eta haurren eskubideekin loturiko berezitasunak aintzat hartzen dituen planteamenduari jarraitu behar diote. Gizaki-salerosketaren biktimekin edo biktima potentzialekin harremanetan jartzeko aukerak dituen edozein funtzionariok prestakuntza egokia jaso behar du biktima horiek identifikatu eta nola tratatu jakiteko. Prestakuntzarako betebeharrak hori batez ere poliziei, mugako guardiei, laneko ikuskatzaileei, osasun-langileei eta langile kontsularrei aplikatu behar zaie; dena den, tokiko inguruabarrak kontuan hartuta, beren eginkizunak betetzean gizaki-salerosketaren biktimekin harremanetan jar litezkeen beste funtzionario publiko talde batzuei ere egokitu ahalko litzaieke.

▪ **Enplegatzaile eta erabiltzaileentzako zehapenak**

2009ko ekainaren 18ko 2009/52/EE Zuzentarauak hirugarren herrialdeetako nazionalak, egoera irregularrean daudenak, enplegatzen dituztenentzat aplikagarriak diren gutxieneko zehapen eta neurriak ezartzen ditu. Halaber, zigorrak aurreikusten ditu hirugarren herrialdeetako nazionalak, egoera irregularrean daudenak, enplegatzen dituztenentzat, beroriek gizaki-salerosketatik inputaziorik edo zigorrak jaso gabe daudela, baldin eta pertsona baten lana edo zerbitzuak erabiltzen badituzte fenomeno horren biktima dela jakin arren. Bestetik, estatu kideek aztertu behar dute pertsona baten zerbitzuen erabiltzaileei zehapenak jartzea beroriek pertsona hori gizaki-salerosketaren biktima dela jakinez gero. Tipifikazio zabalago horrek bere baitan har litzake hirugarren herrialdeetako nazionalak, legezko bizilekua dutenak, eta EBko nazionalak enplegatzen dituztenak; baita gizaki-salerosketaren biktimak egindako sexu-zerbitzuen erabiltzaileak ere, biktimaren nazionalitatea edozein izanda ere.

▪ **Fenomenoaren azterketa**

Estatu kideek gainbegiratzeko sistema nazionalak ezarri behar dituzte, beren barne-antolamenduaren arabera egokitzen jotzen duten moduan eta berriazko zereginak dituen gutxieneko egitura aurreikusteko beharra kontuan hartuz; esate

baterako, txostengile nazionalak edo antzeko mekanismoak, era horretan gizaki-salerosketaren joerak aztertzeko, gaitz horren kontrako borrokaren emaitzak neurtzeko eta egokiak diren agintari nazionalai aldiro-aldiro informazioa emateko.

- **EBko biktimen eskubideak sendotzeari buruz Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako Komunikazioak (2011.5.18)** nabarmentzen du biktimak araudi berriaz sendotzeko beharra eta, gainera, "bereziki ahulak diren biktimen" taldean pertsona-salerosketaren biktimak sartzen ditu.

Espainiako Estatua

Espainiako Gobernuaren **Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren kontra borrokatzeko Planak** jarduera hauek ezartzen ditu⁷:

- Berariazko arreta integralerako programak dituzten harrera-zentroak sortzea (psikosoziala, medikoa eta lege-arlokoa).
- Laguntza juridiko espezializatua ematen duen zerbitzua, eta euren hizkuntzan, eskaintzea.
- Biktimei arreta integrala ematea, segurtasuna eta isilpekotasuna eskainiz, gutxienez alderdi hauetan: **ostatua** –dauden modalitateetan–, **tratamendu mediko eta psikologikoa, zerbitzuei eta programei buruzko informazioa eta lege-aholkularitza**.
- Laguntza integrala denez, **hezkuntza-, prestakuntza- eta gizarteratze- eta lanbideratze-arloetan** ere neurriak hartu behar dira.

Espainiako Gobernuak Giza Eskubideei buruzko 2008ko abenduko Planean hau ezartzen du: "*Zigor Kodearen erreforma egiteko lege-proiektua onartuko da gizaki-salerosketaren delitua sartzeko asmoz*" (84. neurria).

Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarte-integrazioari buruzko 2000. urteko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak –*Atzeritarren Legea* izenez ere ezaguna baita– 2/2009 Lege Organikoak gehitutako aldaketaren ondoren 59 bis artikulua sartu du. Artikulu horretan hau azaltzen da:

- administrazio-erakunde eskudunen iritziz, zentzuzko arrazoiak badaude egoera irregularrean dagoen atzerritarra gizaki-salerosketaren biktima izan dela sinesteko, interesdunari artikulua honen aurreikuspenei buruzko informazioa emango diote eta agintari eskudunari suspertzeko eta gogoeta egiteko aldia emateko proposamena helaraziko diote. Aldi horrek gutxienez hogeita hamar egun iraungo du eta "*delituaren*

⁷ Espainiako Gobernuak (2008) *Plan integral de lucha contra la trata de seres humanos con fines de explotación sexual*. III. Arloa: Biktimei laguntza eta babesa emateko neurriak; 3., 4. eta 5. helburuak.

ikerketan eta, hala egokituz gero, zigor-arloko prozeduran agintariekin elkarlanean aritu nahi duen biktimak erabakitzeke adinakoa izan beharko du".

- Epealdi horretan aldi baterako egonaldiako baimena emango zaio eta, halaber, eten egingo dira zehapen-prozedura administratiboa edo behin-behinean erabakitako kanporatzearen edo itzultzearen betearazpena. Bestetik, epealdi horretan administrazioen esku egongo dira biktimaren bizibidea, segurtasuna eta babesa.
- Agintari eskudunak biktima administrazio-erantzukizunetik salbuetsita utzi eta onar dezake, hala erabakitzen badu, haren jatorri-herrialderako itzulera lagundua egitea edo salbuespenezko inguruabarrengatik egoitza- eta lan-baimena ematea –betiere beharrezkotzat jotzen badu biktimak ikerketarako edo akzio penaletarako egindako ekarpenagatik edo haren egoera pertsonala kontuan harturik– eta gizarteratzeko erraztasunak eskaintzea.

Zigor Kodearen erreformak, Senatuak onartu baitzuen (2010/6/11ko BOCG) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean 2010eko ekainaren 23an argitaratu baitzen («VII bis TITULUA. Gizaki-salerosketa». II. LIBURUA), 10/1995 Lege Organikoa aldatuz, gizaki-salerosketari buruzko arauketa egiten du immigrazio klandestino edo pertsonen trafikoa kontuan hartu gabe. Erreforma hori baino lehenago Europako Erkidegoko edo Espainiako emakumeak ezin ziren sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimak izan, baina bai sexu-esplotazioarenak.

- Gizaki-salerosketaren errudun gisa, 5 urtetik 8 urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio **Espainiako lurraldean -bertatik, iraganbidean edo Espainiarako bidean-, indarkeria, larderia edo engainua erabiliz; edo biktimarekiko (nazionala edo atzerrikoa) nagusitasun-, beharrizan- edo engainu-egoeraz abusatuz**, pertsonekin trafikatzeko duenari; horretarako pertsonak erakarrit, garraiatuz, lekualdatuz, jasoz, hartuz edo ostatu emanez, hauetako edozein helburu duela:
 - a) Lana edo zerbitzu bortxatuak, esklabotasuna edo esklabotasunaren edo morrontzaren antzeko jarduerak ezartzea.
 - b) Sexu-esplotazioa, pornografia barne.
 - c) Haren gorputzaren organoak erauztea.
- Aurreko paragrafoan agertzen diren bideetako bat ere erabili ez arren, aurreko paragrafoan aipatutako edozein ekintza gizaki-salerosketatzat joko da adingabeen sexu-esplotaziorako eginez gero.
- Gizaki-salerosketaren biktimak emandako baimenak ez du garrantzirik artikulua honen lehenengo paragrafoan adierazitako bideak erabili baldin badira.

Gizaki-salerosketaren Biktimak Babesteko Esparru Protokoloak –Justizia Ministerioaren; Barne Ministerioaren; Lan eta Immigrazioko Ministerioaren; Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioaren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Fiskaltzaren arteko Akordio bidez 2011ko urriaren 28an sinatua– alderdi hauek jorratu eta gizaki-salerosketaren biktima guztiak eraginpean hartzen ditu:

- a) Biktimak identifikatzeko prozedura eta erakundeen eta agintarien jarduera koordinatzea.
- b) Arriskuak ebaluatzeko jarraibideak eta babes-neurriak.
- c) Salatzea eta agintari judiziala jakinaren gainean jartzea.
- d) Biktimei eskubide, zerbitzu eta baliabideei buruzko informazio egokia ematea.
- e) Laguntza egokia emate aldera, biktimaren beharrianak ebaluatzea.
- f) Biktima atzeritarren borondatezko itzulera.
- g) Suspertzeko eta gogoeta egiteko aldia emateko prozedura, baita biktima atzeritarrei beste onura batzuk emateko ere.
- h) Biktima adingabeak.
- i) Biktimentzako laguntzan espezializatutako erakundeen parte-hartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktima diren emakume eta neskatilak emakumearen kontrako indarkeriaren biktimatzat hartzen dira, **Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legean** zehazten den bezala. Hona hemen emakumearen kontrako indarkeriaz ematen duen definizioa:

"sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira halaber emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan". (50. art.)

Emakumearen kontrako indarkeria-mota bat denez, sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketa sartu beharko litzateke EAE barruan indarkeria prebenitu, ikertu eta haren kontrako prestakuntza jasotzeko zehaztutako jarduera guztietan.

Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak, *Herrizaingo Sailaren eskumenei buruzko 6. artikuluan* i) paragrafoan hau jasotzen du: genero-indarkeriaren biktimentzako arretari buruzko politikak zuzentzea eta koordinatzea.

Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko **abuztuaren 28 471/2009 Dekretuak** 10. artikuluan ezartzen du Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortzea. Esleitutako eginkizunek lotura dute sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimentzako arretarekin generoaren arloko biktimak diren aldetik. Hauek ditugu loturarik handiena dutenak:

- Genero-indarkeriaren biktimenganako elkartasuna eta aitorpen publiko eta soziala sustatzea, hartarako egokienak diren ekimen eta jardueren bitartez.
- Genero-indarkeriaren biktimei laguntza zuzena eta pertsonalizatua ematea, Saileko prestazio, zerbitzu eta baliabideekiko; baita informazioa ematea eta, beren inguruabar pertsonal eta sozialak kontuan hartuta, egokienak diren gainerako prestazio, zerbitzu eta bitartekoetara bideratzea ere.
- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat Genero-indarkeriaren Aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako laguntza ekonomikoak izapidetzea eta ematea nahiz ordaintzea ebaztea.
- Etxeko indarkeriaren edo sexuagatiko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko informazio eta arretako zerbitzua kudeatzea.
- Genero-indarkeriaren biktimentzat prebentzio eta laguntzarako programa integralak erakunde eta administrazio publikoen artean sustatzea eta koordinatzea eta, halaber, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren baitan garatutako programak eta proiektuak gainbegiratzea, baita horien jarraipena egitea ere.
- Botere publikoekin jarduerak sustatzea, beroriei aholku ematea eta horiekin lankidetzan aritzea emakumeen aurkako indarkeriari loturiko esku-hartzean.
- Informazio- eta zabalkunde-kanpainen bidez herritarrak sentsibilizatzeko neurriak sustatzea eta garatzea; betiere genero-indarkeriaren biktimen egoerari, eskubideei, dagozkien baliabideei eta berorietara iristeko bideei dagokienez.
- Genero-indarkeriaren biktimei aitortutako eskubideak benetan betetzen direla jarraitzea, baita helburu hori duten ekimen eta jarduerak babestea eta sustatzea ere.
- Erakunde, elkarte eta gizarte-mugimenduekin harremanak, partaidetza eta lankidetzarako bideak eta laguntza ekonomikoetarako programak ezartzea; betiere beren helburua genero-indarkeriaren kontrako jarduera eta, bereziki, biktimei laguntza eta arreta ematea bada.
- Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiarekin eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin lankidetzan, genero-indarkeriaren biktimetzako prebentzioan, arretan eta babesean esku hartzen duten profesionalentzat eta gizarte zibileko taldeentzat prestakuntza bereziko planak sustatzea.
- Segurtasun Sailburuordetzaren Kabineteko Zuzendaritzarekin koordinatuta, Zuzendaritza horri dagozkion gaien gaineko datuak bildu, aztertu eta bideratzeko lanak antolatzea, baita bere eskumen-esparruan estatistika egokiak eta eguneratuak egitea eta zabaltzea ere.
- Genero-indarkeriaren biktimetzako laguntzaren arloan saileko jarraibideak egitea.

Genero-indarkeriaren biktimei laguntza emateko politikak ezartze aldera, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak Ertzaintzaren Zuzendaritzari eska diezaioke horretarako behar duen informazio guztia. Era berean, Ertzaintzaren Zuzendaritzaren laguntza izango du genero-indarkeriaren biktimei arloan Zuzendaritzak ezarriko dituen jarraibideak, zirkularrak eta helburuak inplementatzeko edo aplikatzeko.

JARDUTEKO PROZEDURA OROKORRA

Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimei laguntzeko ibilbidea –biktima identifikatzea, arreta eta harrerako zerbitzuetara bideratzea eta ondoren irtetea eta jarraipena egitea- fase hauetan antolatu eta laburtu egiten da:

IDENTIFIKATZEA ETA BIDERATZEA

Identifikatzeko prozesua Ertzaintzak edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidekoek egiten dute elkarrekin, zerbitzu publikoetatik edo herritarrengandik datozen salaketetatik abiatuta edo beren polizia-operatiboen emaitza gisa.

- Identifikazioa udaltzaingoak egiten badu, Ertzaintzara joko du behar diren prozedurekin jarraitzeko.
- Identifikazioa arretan espezializatuta dagoen erakunde batek egiten badu, Ertzaintzari jakinaraziko dio protokoloan adierazitako beharrezko prozedurei hasiera emateko.

Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimak identifikatu ahal izateko beste gako batzuk hauek ditugu: laneko ikuskatzaileak; osasun-zerbitzuak eta; bestetik, etorkin-taldee, prostituzioan aritzen diren eta/edo gizartean baztertuta dauden pertsonen zerbitzuak egiten dizkieten gobernu kanpoko erakundeak.

GIBLZ sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimei laguntzeko **erakunde koordinatzaile** gisa erabakitzen da. Euskal Autonomia Erkidegoan biktimatzen jotzen diren pertsonak laguntza-baliabideentzat biktima direla "egiaztatzeaz" ere arduratuko da, eta biktima egokiena den laguntza-baliabidearekin harremanetan jartzeaz ere bai.

Delitua ikertzeaz arduratzen den kidego poliziala biktimei babesaz eta segurtasunaz ere arduratuko da. Beste kidego polizial batek hasitako ikerketarik egon ezean, Ertzaintzak du eskumena ikerketa hasteko eta biktimei babesaren ardura hartzeko.

PROZEDURA

1. Ertzaintzak edo Segurtasun Indar eta Kidegoek biktima potentzialak identifikatuko dituzte beren erakunde-barruan ezarritako **identifikazio-jarraibideen** arabera. Jarraibideok 2011 ekaineko "Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktima izan daitezkeen pertsonak identifikatzeko adierazleak" izeneko dokumentuan daude jasota.

1.a. Biktimekin izango den lehenengo harremanean **identifikazio osoa** egitea ahalbidetuko duen informazioa bilduko du.

- Pertsonak bere burua biktimatzat hartzen ez duen arren, halakotzat joko da identifikazio-jarraibideetan oinarritutako ebidentziak edo zantzuak badaude.
- Beharrezkoa denean, interpretazio-zerbitzuetara joko da biktimarekin komunikazio eraginkorra bermatzeko.
- Biktimak egingo duen lehenengo adierazpenean **lekuko babestua** izateko aukera eskainiko zaio.

1.b. Osasun-zentro batean laguntza jasotzeko premia larria egonez gero, Fiskaltzak hala eskatuta, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak (AMEE) parte har dezan eskatuko da; hain zuzen, auzitegiko medikua bertaratu dadin eta azterketa egin dezan, eta osasun-zentroari horren berri emango zaio.

1.c. Biktimari informazioa emango zaio isilpekotasunaren printzipioari eusteari buruz, bere egoerari buruz eta dituen eskubideei buruz; hain zuzen, modu eta eduki hauen bidez:

- "Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktima izan daitezkeenentzako 2011ko baliabide-gida" emango zaio.
- Azalduko zaio aukera daukala beste emakume batzuekin batera harrera-pisu batean sartzeko, non bere segurtasuna lehenetsiko den.
- Harrera integraleko baliabidean sartzea aukeratu ezik, GIBLZren **900 840 111** telefonora jotzeko esango zaio informazio gehiago lor dezan.

2. Ertzaintzak edo Estatuko Segurtasun Indar eta kidegoek arriskuaren ebaluazioa egin eta **segurtasun-plana** ezarriko dute esplotazio-egoeraren ezaugarriak, ustez nahasitako sare antolatua eta burutzen ari den polizia-prozesua kontuan hartuz; eta GIBLZra bidaliko den txostena landuko dute.

2.a. Segurtasun-arrazoiengatik biktima beste autonomia-erkidego batera lekualdatzea egokitzen jotzen bada, ikertzeaz eta emakumea babesteaz arduratzen den polizia-kidegoak behar diren koordinazio-protokoloak aktibatuko ditu.

2.b. Ertzaintzak edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek biktimari atsedena, higiena, elikadura eta abarreko **berehalako premiak betetzeko arreta** eskainiko diote harik eta **elkargunera** lekualdatu arte. Baliabide espezializatua kudeatzen duen erakundea elkargune horretara joango da emakumea baliabidera behin betiko lekualdatzeko.

3. Identifikazioa egin ondoren, **Ertzaintzak edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek GIBLZri** biktimaren identifikazioa jakinaraziko dio, 24 orduko arretarako telefonoaren bidez (900 840 111). Halaber, aipatu zuzendaritzak, zerbitzu horren bitartez, **Ertzaintzari edo Estatuko Segurtasun Indar edo Kidegoei** azalduko die zein **elkargune** ezarri den emakume biktima lekualdatzeko laguntza espezializatuko baliabidea kudeatzen duen antolakundearekin adostuta.

4. Geroago, **Ertzaintzak edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek** komunikazio hauek egin ahalko dituzte:

- **Fiskaltzari**
- **Gobernuaren Ordezkariordeztzari**, baldin eta Europar Batasuneko edozein herrialdeetakoaz bestelako nazionalitatea badu eta/edo agiri-faltsutasuna edo -irregularitasuna antzemanen gero.

5. Erantzukizunak zehazten direnean, **Ertzaintzak edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek GIBLZri** jakinaraziko diote zein izango den erreferentziazko pertsona edo unitatea biktima babesteko eta koordinazioa egiteko eta; halaber, GIBLZk kontaktu horri biktima hartuko duen laguntza espezializatuko baliabidearen berri emango dio.

6. Zenbait polizia-kidegok babestutako biktimak baliabide berean bilduz gero, GIBLZk inplikatuiei biktima horien sarreraren eta irteeraren berri emango die.

ARRETA OSOA

Biktimei laguntzeko zerbitzuentzat jarraian adierazten diren gutxieneko zerbitzuak ezarri dira Europako eta Espainiako erakundeek eta proiektuen gomendioak oinarri hartuta⁸.

- **Harrera**

Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima arreta-baliabide batean hartzearen helburua da inguru segurua eskaintzea pertsonak laguntza espezializatua jaso dezan; horrela, indarberritzeko eta bere etorkizunari buruzko erabakiak hartzeko astia izateko moduan egon dadin.

- **Laguntzarako baliabideak indarberritzeko aldia**

Biktimei laguntzeko zerbitzu guztiak arreta-baliabide bakar batetik eskain daitezke, bere langileen bidez hainbat zerbitzu ematen baititu edo; bestela, espezializatutako hainbat elkarte edo zerbitzuren bitartez.

- *Laguntza psikologikoa*
- *Laguntza juridikoa*
- *Prestazio ekonomikoak*
- *Telefono bidezko arreta-zerbitzua*
- *Laguntza medikoa*
- *Hezkuntza-zerbitzuak, lanbide heziketakoak eta enplegua bilatzeko zerbitzuak*

PROZEDURA

1. Laguntza-baliabideak premiak baloratuko ditu eta **esku hartzeko plana** prestatuko du, biktimearekin adostuta eta Ertzaintzaren eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek adierazitako segurtasun-jarraibideak kontuan hartuta.

⁸ Iturriak hauek dira: *Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitea. Laguntza-zerbitzuetarako gutxieneko arauak*, Europako Kontseiluarena, Berdintasun Ministerioa (2009), *Report of the Experts Group on Trafficking in Human Beings*, Europako Batzordearena (2004ko abendua); *Assisting Victims of Trafficking in Human Beings*, CCEM (2003); *Plan integral de lucha contra la trata de seres humanos con fines de explotación sexual*, Espainiako Gobernuarena (2008), eta *National Referral Mechanisms: Joining Efforts to Protect the Rights of Trafficked Persons*, ODIHR (2004).2001/220/JAI: Europako Kontseiluak 2001eko martxoaren 15ean hartutako Esparru-erabakia, prozesu penalean biktimek duten estatutuari buruzkoa; *Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako jakinarazpena: Biktimen Eskubideak Sendotzea EBN (2011).*

2. Beren isilpekotasuna eta segurtasuna zaintze aldera, laguntza-baliabideek **GIBLZri bakarrik biktima babesteko beharrezkoa den informazio guztia emango diote, haren kokalekua barne.**

3. Hasierako esku-hartze plana **GIBLZri** bidaliko zaio. Gainera, **GIBLZk** hala eskatzen duenean, arreta-baliabideak biktimaren egoerari buruzko txosten eguneratuak egingo ditu, baita gizarteratzeko eta indarberritzeko haren prozesuari begira egokienak diren neurrien inguruko gomendioak ere.

4. Biktimak ikerketa polizialean eta/edo judizialean laguntzen baldin badu, **baliabideak** haren kokalekua zein den zehaztuko du beharrezko errekerimendu judizialak egiteko. Biktimak laguntzeari uztea erabakitzen badu, baliabideak **GIBLZri** jakinaraziko dio eta irekitako prozesuei begira haren kokalekua zehazteko betebeharririk ez du izango.

5. Biktimaren segurtasunaz arduratzen den **polizia-kidegoak** arriskuaren ebaluazio jarraitua egingo du indarberritzeko aldian zehar eta, bestetik, **GIBLZri** segurtasun-planeari sartutako aldaketan berri emango dio. Halaber, **GIBLZk** beharrezko informazioa emango dio **laguntza integraleko baliabideari**.

6. Ikerketaz arduratzen den polizia-kidegoak, hala egokituz gero, Gobernuaren Ordezkariordeztzari jakinaraziko dio gizaki-salerosketaren biktima-egoeran egoteagatik gertatutako irregularutasuna.

IRTEERA ETA JARRAIPENA

Esku-hartze prozesua arrakastaz bukatu dela irizteko gutxieneko baldintzak hauek dira:

- *Pertsona indarberritu da eta bere bizimodua aurrera ateratzeko nahikoa bitarteko pertsonal eta baliabide ekonomikoak baditu, enplegu baten bidez edo diru-laguntzen bidez.*
- *Arrisku-ebaluazio polizialak ez du aholkatzen arreta-baliabidetik ez ateratzea.*
- *Pertsonak informazio argia eta zehatza du etorkizunean behar izanez gero eskura ditzakeen baliabideei buruz (gizarte-, babes-, osasun-, etxebizitza-, prestakuntza- eta enplegu-alorrekoak), bai EAEn bai bizilekua izango duen lekuan (jatorri-herrialdea edo beste autonomia-erkidego bat).*

PROZEDURA

1. Arreta-baliabideak irizten baldin badio esku-hartzearen helburuak bete direla, **amaierako txostena egin eta GIBLZri eta Ertzaintzari edo** segurtasunaren ardura duen **polizia-kidegoari** jakinaraziko die.

- Biktimak esku-hartzea bere borondatez bertan behera uztea erabakitzen badu, GIBLZri ere jakinaraziko zaio.

2. GIBLZk ofizialki erabakiko du esku-hartzea suspertzeko fasean ixtea. Hauek izan daitezke arrazoiak:

- Arreta-baliabideak irizten dio esku-hartzearen helburuak bete direla.
- Biktimak bere borondatez erabaki du esku-hartzea bertan behera uztea.

3. GIBLZk Fiskaltzari jakinaraziko dio biktima arreta-baliabidetik irten dela.

4. Behin esku-hartzea amaituz gero, eta behar diren koordinazio-mekanismoak eta baliabideak garatzen diren neurrian, zenbait **jarraipen-estrategia** planifika daitezke, biktimaren behin betiko bizilekua zein den kontuan hartuta.

- Estrategia horien barnean sar daiteke laguntza-elkarteekin eta arreta-baliabideekin aldizkako harremanak izatea, bai EAEn edo Espainian edo - hala egokituz gero- biktimen jatorrizko herrialdeetan.
- Beste herrialde batetik datorren eta, halaber, administrazio-egoera erregularrean dagoen emakumea baldin bada, beharrezkoa eta posiblea dela iritziz gero, harremanak ezarriko dira jatorri-herrialdeko erakundeekin eta polizia-segurtasuneko indarrekin emakumeak arreta eta babesa jasotzen dituela bermatzeko; horrela, beraren gizarteratzea erraztu eta aurrerantzean esplotazio-egoera berriak errepikatzea eragotziko baita.